

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure bezeroentzat egingo ditugun produktu hauen sormenerako lau funtsezko baliabide behar ditugu, enpresarentzat oso garrantzitsuak direnak. Hasteko, baliabide fisikoak, hagunak egiteko erabiliko den tresneria, materialak, makinak, eta gainontzeko tresneria guztia sartzen dira, ezin baitugu ahaztu, nahiz eta ahalik eta salmenta handiena online moduan egin, gure hagunak makina espezifikoaren bidez egingo ditugula, modu desberdinetara, batzuk makina automatizatuen bitartez, beste batzuk aldiz giza laguntzaz dabilzan makinekin. Ondoren, baliabide intelektualak, enpresako jabeok dugun ezagutza sartzen da, hau da, web orri bat egiterakoan dugun ezagutza, enpresa bat nola garatzen den ezagutzea, eta garrantzitsuena gure proiektu hau aurrera eramateko sormena da, sormenik eta ideiarik gabe ezin baita horrelako proiektu bat aurrera eraman. Hirugarrena giza-baliabideak dira, enpresaren antolaketa eta giza baliabideak sartzen dira atal honetan, hau da, produktua egiteko abilezia sartzen da atal honetan, denok dakigunez dena ezin da makina automatizatuen bitartez egin, badira fabrikazioaren prozesuan hainbat atal non gizakiaren abilezia ezinbestekoa den. Eta azkenik finantza baliabideak dauzkagu, enpresa bultzatzeko ditugun diru-sarrerak, aurreko atalean adierazi dugun moduan, edozein proiektu edo enpresa martxan jartzeko ezinbesteko baldintza da diru sarrera finko bat bermatuta izatea, bestela ez luke enpresa honek asko iraungo. Baliabide hauei esker, bezeroek erosketa errazago egin ahal izango dute, abantaila kantitate handia eskeintzen diegulako. Abantaila hauetako batzuk honako hauek izango lirateke, batetik denda fisikoa eta on-line denda euren erosketa aurrera eraman ahal izateko, hagunak nahi dituzten modura diseinatu ahal izango dituzte nahi duten diseinu eta materialez osatuta, eta beste abantaila garrantzitsu bat ere izango dute, on-line asistentzia, erosle eta saltzailearen arteko harremana estuagoa izateko, eta zalantzarik izanez gero guk argitu ahal izateko.

